



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2020

LANBIDE

| | |
|--|----|
| 1. Pertsona ekintzaileentzako laguntzak..... | 3 |
| 2. Errelebo-kontratua..... | 5 |
| 3. Familia eta lana kontziliatzeko laguntzak..... | 7 |
| 4. Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak | 9 |
| 5. Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen dutenentzat. Ordainketa bakarra..... | 11 |
| 6. Desgaitasuna duten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak | 13 |
| 7. Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak | 14 |
| 8. Laneratzeko enpresei zuzendutako laguntzak..... | 16 |
| 9. Laguntzak SINTEL enpresako langileei..... | 18 |
| 10. Enplegu-zentro berezietako lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko laguntzak..... | 20 |
| 11. Lehen Aukera Programa | 22 |
| 12. Tokiko entitateek gazteak kontratatzea, 2014-2020 eperako Gazte Enpleguaren Programa Operatiboaren esparruan | 24 |
| 13. Aparteko dirulaguntzetarako deialdia; dirulaguntzen hartzaileak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda dituztenak Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta | 26 |
| 14. Aparteko dirulaguntzetarako deialdia; dirulaguntzen hartzaileak laneratzeko enpresak eta enplegu-zentro bereziak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda edo murriztuta dituztenak COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma- egoera dela eta | 28 |
| 15. Lanbide-orientazioko ekintzetarako laguntzak..... | 30 |
| 16. Gazteen Itzulera programa | 32 |
| 17. Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzeko dirulaguntzak (30 urte edo gehiago izanik luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak) | 34 |
| 18. Enplegu lagundurako jardueretarako laguntzak | 36 |
| 19. Covid-19k eragindako osasun-krisiaren kudeaketarako alarma-egoerarengatik, haien jarduerak eten edo bertan behera geratu zaizkien kulturako profesionalentzako laguntzak | 38 |



| | |
|--|----|
| 20. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria | 39 |
| 21. Proiektu bereziak (Gizarteratzea + Formakuntza) | 41 |
| 22. Lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak (82/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duena) | 44 |
| 23. HEZIBI programa – Formakuntza eta txandakako lana gazteentzat | 46 |
| 24. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko diru-laguntzen deialdia | 48 |
| 25. Kontratatzeke konpromisoa duen prestakuntza | 50 |
| 26. Kualifikazio txikiko gazteentzako prestakuntza | 52 |
| 27. COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzak | 54 |
| 28. COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzak (2. deialdia) | 56 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Pertsona ekintzaileentzako laguntzak

2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2020ko otsailaren 25eko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen pertsona ekintzaileentzako laguntzen 2020ko deialdia. (1514 Ebazpena, 2020/02/26koa - 50. EHAA, 2020ko martxoaren 12koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHArri Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001514e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko ekintzaileei zuzendutako deialdia. Lau ildo hauek ditu:

- a) Ekintzaile izan daitezkeen pertsoneri zuzendutako laguntzak, enpresa-ideiak sortu, aztertu eta egituratzeko lanak egin ditzaten arduraldi osoan, ekintzailetzako toki-proiektuen esparruan. (APEI).
- b) Tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan, negozio-idea zehaztua duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jar ditzaten bultzatzeko laguntzak. (APEA).
- c) Enpresa-jarduera bat hasi duten eta hura sendotzeko laguntza ekonomikoa behar duten pertsonentzako laguntzak (APES).
- d) Enpresa-jarduera bati ekin dioten pertsonentzako laguntzak, jarduera hori sendotzeko. (APEC).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

- Sortutako enpresa-kopurua: 626(APES:128; APEC:498) + APEA: 208 enpresa-proiektu, JEGZ-aren balizko altak, laguntza- eta tutoretza-aldia amaitzean.
- Laguntza ekonomikoa eskuratu duen ekintzaile-kopurua: 1.213 (APES: 128; APEC: 498; APEA: 208 emandakoak; APEI: 379 emandakoak)
- Entitate laguntzaileen kopurua: 26

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honek arautzen dituen laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.000.000 eurokoak dira; horietatik, 2.605.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.395.000 euro, 2021eko konpromiso-kredituari. 2020an exekutaturako aurrekontua: 2.014.395 €.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Emaitza garrantzitsuak mantentzen dira, are gehiago bizi ditugun osasun- eta ekonomia-inguruabarrak kontuan hartuta; izan ere, programa baliagarritzat eta gizarte-eragina duen programatzat hartzen da, enplegua sortzeko alternatiba izaten jarraitzen baitu besteren konturako enplegu-sortze tasa baxuen



aurrean, eta, gainera, batez ere, pandemiaren ondorioengatik berriz ere zigorrik handiena jaso duen kolektibo bati zuzenduta dago, 2008ko krisiagatik izan zen bezala.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|---|----------------------|---|
| Sortutako enpresa-kopurua | 550 | 626 (APES:128; APEC:498) + amaitu gabe APEA: 208 |
| Enpresa-ideia bat garatzeko eta enpresa-proiektua abiarazteko enpresa-ekimenak sustatzen dituzten pertsonen kopurua | 370 | amaitu gabe |
| Jada sortuta dagoen eta martxan jartzeko, Jarraitzeko nahiz egonkortzeko dirulaguntza jaso duen enpresa-kopurua | 980 | 626 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Errelebo-kontratua

2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko abenduaren 11ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen errelebo-kontratuak sustatzeko 2020ko laguntzen deialdia. (5878 Ebazpena, 2019/12/11koa - 245. EHAA, 2019ko abenduaren 26koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905878e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

30 urtetik beherako gazteen eta 45 urtetik gorako pertsonen enplegua sustatzen du, Lanbiden izena emanda daudenena eta enpresetan iraupen mugatuko kontratuekin lan egiten ari direnena. Xede hori betetzeko, diruz laguntzen dira enpresek gazteen kolektibo horrekin sinatzen dituzten errelebo-kontratuak, honako baldintza hau jarrita: kontratuak lanaldi osokoak eta iraupen mugagabekoak izatea; edo, bestela, iraupen mugatukoak izanez gero, kontratua amaitu ostean edo bukatu aurretik mugagabe bihurtzeko konpromisoa hartzea hasieratik. Era berean, errelebo-kontratua duen pertsonak gutxienez 14.000€ irabazi behar ditu urtean.

Kontratu bakoitzeko 8.400 €-ko laguntza emango da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Kontratututako pertsona-kopurua: 111

Aurrekontuaren exekuzioa:

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira guztira; horietatik, 600.000 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 400.000 euro 2021ko konpromiso-kredituari. 2020an exekutututako aurrekontua: 571.032 € (60%).

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:

Beste urte batez, emaitzak aurreko deialdietakoak baino handiagoak izan dira. Agerikoa da oso baliagarria dela eta gizartean eragina izan dezakeela; izan ere, programa horren helburua da belaunaldien arteko erreleboa erraztea, plantillak gartzetuz, gazteak kontratatzen badira, edo esperientzia eta oraindik ere lan-ibilbide nahikoa duten pertsonak sartuz, 45 urtetik gorakoak kontratatzen badira (bi kolektibo horiek dituzte enplegua lortzeko zailtasun handienak).



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|---|----------------------|----------------|
| Gazteei egin beharreko errelebo-kontratuen kopurua | 85 | 61 |
| 45 urtetik gorakoei egin beharreko errelebo-kontratuen kopurua: | 45 | 44 |
| Errelebo-kontratuei lotutako kontratu osagarrien kopurua: | 20 | 14 |
| Parte hartu duen enpresa-kopurua: | 150 | 111 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Familia eta lana kontziliatzeko laguntzak

2.- Araua

Erabakia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2020ko martxoaren 3koa, zeinaren bidez baliabide ekonomikoak esleitzen baitira, 2020ko ekitaldian, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren IV. kapituluan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko. (1660 Ebazpena, 2020/03/04koa - 58.EHAA, 2020ko martxoaren 24koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001660e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren IV. kapituluan, familia eta lana bateragarri egiteko politikaren esparruan, seme-alabak edo mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko kontrataziorako laguntzak arautzen dira:

- Diruz lagunduko da langabe gisa inskribatutako pertsonak kontratatzea, besteren konturako langileak edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordezteko, baldin eta eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu badute.
- Era berean, diruz lagunduko da aurretik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldia luzatzea, eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dagoen pertsona baten lanpostua betetzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Diruz lagundutako kontratazioak: 1.294

Aurrekontuaren exekuzioa

Laguntza hauek finantzatzera 2020ko deialdian bideratutako baliabide ekonomikoak 2.200.000 €-koak dira. 2020an exekutaturako aurrekontua: 1.790.712,77 €.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

2020an osasun-krisia dela-eta diruz lagundutako kontratuek behera egin duten arren, programaren erabilgarritasuna eta eragina ez da eztabaidagarria; izan ere, aurreko bi ekitaldietan bezala, normaltasun-egoeretan hasierako kreditua handitu behar izan zen jasotako eskaerei erantzuteko. Kontratazio horiek bi eragin dituzte programa honen onuradun diren enpresetan: alde batetik, ordezkatutako langileen familia



eta lana bateragarri egitea ahalbidetzen du, eta, bestetik, langile berriak kontratatzea eta enpresa onuradunetan sinergiak mantentzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emitza</u> |
|-------------------|----------------------|---------------|
| Kontratu-kopurua: | 1.750 | 1.294 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez diru- esleitzen baitira 2020. urtean desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak enplegu-zentro berezietan mantentzeko laguntzak finantzatzeko. Laguntza horiek urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan daude aurreikusita (168/2019 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak arautzen dituena). (1467 Ebazpena, 2020/02/26ko 48. EHAA, 2020ko martxoaren 10ekoa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001467e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Desgaitasuna duten pertsonen laneratzea, integrazio pertsonala eta gizarteratzea sustatzea, eta desgaitasuna duten ahalik eta pertsona gehien lan-erregimen arruntean integratzeko tresna izatea. Halaber, desgaitasuna duten langileen baldintza fisiko, psikiko edo intelektualetara egokitutako lanpostuak eskaintzen dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

- Kontratututako pertsona-kopurua (batez besteko plantilla urtean): 9.348
- Zentro-kopurua: 75

Aurrekontuaren exekuzioa

Hasiera batean, laguntza-programa hori finantzatzeko diru-baliabideak 50.600.000 eurokoak izan ziren 2020ko ekitaldian. COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan jasotako neurriak direla eta, ezohiko laguntzak deitu ziren enplegu-zentro berezietarako eta laneratze-enpresetarako, eta, azkenean, 2.900.000 euro bideratu ziren horiek finantzatzeko, 2020rako desgaitasunen bat duten pertsonen lanpostu bereziak mantentzeko laguntzetarako esleitutako baliabideetatik. Beraz, programa honetarako azken kreditu erabilgarria guztira 47.700.000 eurokoa izan zen. 2020an exekutututako aurrekontua: 47.633.142,42 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

2020an zehar enplegu-zentro berezi berriak eskatu eta kalifikatu dira, eta horrek lanpostu berriak sortzen ari da. Bestalde, azken ekitaldietan, diruz lagundutako lanpostuen kopuruak gora egin duela egiaztatzen da, baina 2020an joera hori moteldu egin da pandemiaren ondorioz, eta, gainera, EZB batzuetan ERTEei aurre egin behar izatea ekarri du. Nolanahi ere, gaur egun, batez beste, 9.348 pertsona daude



desgaitasunen bat dutenak lanean eta artatuta, eta horrek eragin sozial handia du, batez ere desgaitasunen bat duten pertsonen familietan eta haien ongizatean, desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratze eta laneratzearen bidez

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|------------------------------------|----------------------|----------------|
| EAE n indarrean dagoen EZB kopurua | 76 | 75 |
| Desgaitasuna duen langile kopurua | 9.600 | 9.348 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen dutenentzat. Ordainketa bakarra

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez zenbait dirubaliabide esleitzen baitira Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak 2020an finantzatzeko. Agindu horren bidez, oinarri arautzaileak ezartzen dira langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. (1468 Ebazpena, 2020/02/26koa - 48. EHAA, 2020ko martxoaren 10ekoa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001468e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzaren xedea da lan elkartuko kooperatiba bateko edo lan-izaerako sozietate bateko langile bazkideek, merkataritza-izaerako entitateak eraten eta abian jartzen dituzten pertsona langabeek eta beren konturako erregimenean lanean hasten direnek jarduera profesionalak egitea. Dirulaguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ordainketa bakarreko modalitatean eman izana langabezia-prestazioa, prestazio horrek egun zuen zenbateko osoan.

Horretarako, diruz laguntzen dira goian adierazitako langileek Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak, baldin eta jasotzeko zuten langabezia-prestazioaren kopuru osoa batera eskuratzeko eskubidea erabili baldin badute, beren jarduera profesionalaren hasieran laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Prestazioa ordainketa bakar gisa jasotzeagatik LANBIDEren aldetik kuoten ordainketak jaso dituzten pertsonak: 500 (lehen ordainketa); 768 (hurrengo ordainketak).

2020an onuradun guztien kopuruak aurreko ekitaldiekin alderatuta izan duen beherakadari dagokionez, kontuan hartu behar da beren konturako langileak edo autonomoak, zeinen jarduerak bertan behera geratu baitira Covid-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzearen ondorioz, Gizarte Segurantzaren aparteko prestazioa jasotzen baitute, eta dagokien Gizarte Segurantzako Araubide Berezian kotizatzeetik salbuesita geratu baitira alarma-egoera horrek irauten duen bitartean. Gainera, uztailean ez dute Gizarte Segurantzako kuota ordaindu, salbuespena% 100ekoa izan zelako, abuztuan kuotaren% 50ekoa eta irailean% 25ekoa.



Aurrekontuaren exekuzioa

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak 500.000 euro izan dira 2020an. 2020an exekutatuak aurrekontua: 253.787,60 €.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Enplegua sustatzeko neurri honen xedea da prestazioen onuradunek enplegu propioa lor dezaten sustatzea eta autoenplegua bultzatzea, langabeziaren aurkako babes-politika pasiboen ordean enplegu-politika aktiboak helduz. Krisi sozioekonomikoko egoerak edo ondorioak dauden bitartean (eta gaur egun krisialdi sanitario bat bizi dugu, dagoeneko ondorioak dituenak eta ekonomikoak dituenak) horrelako neurriak bultzatzen jarraitu behar da, langabeak lan-merkatuan sar daitezela errazteko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|---|----------------------|----------------|
| Kooperatibetan edo lan-sozietateetan bazkide modura sartu den pertsona-kopurua, edo autonomo hasi direnak, hau da, norberaren kontura | 750 | 500 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Desgaitasuna duten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez baliabide ekonomikoak esleitzen baitira, 2020. urtean, desgaitasunak dituzten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak finantzatzeko. Laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu-zentro berezien Euskal Erregistroa arautzeko urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitakoak (1661 Ebazpena, 2020/03/04koa 58.EHAA, -2020ko martxoaren 24koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHArri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001661e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hartutako neurrien helburua da desgaitasuna (sortzetikoa nahiz eratorria) duten pertsonen laneratzea bultzatzea, enpresa arrunteko lanpostuetan. Finean, dirulaguntza ematen zaie enpresei, desgaitasuna duten pertsonak kontrata ditzaten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Kontratututako pertsona-kopurua: 132

Aurrekontuaren exekuzioa

Laguntza horiek 2020an finantzatzeko, 700.000 euro bideratu dira. 2020an exekutututako aurrekontua: 463.476,86 €.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean eta kontratu mugagabeen bidez laneratzen laguntzen du programa honek, eta baliagarritasun eta eragin sozial handiak ditu kolektibo horretako pertsonentzat, lan babestuaz bestelako lan-aukerak ematen dizkielako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|---|----------------------|----------------|
| Kontratu mugagabe kopurua enpresa arruntean | 200 | 132 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak

2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2020ko ekainaren 23ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2020ko laguntzen deialdia. (2554 Ebazpena, 2020/06/24koa - 127. EHAA, 2020ko ekainaren 30ekoa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002554e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateei laguntzak ematea, enplegua sortzeko proiektuak abian jar ditzaten. Proiektu horiek eragina izan behar dute beren jardun-eremuko lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan, eta modu orekatuan eskaini behar dituzten enplegu-aukerak Euskadiko eskualde guztietan; betiere, 2020 Euskal Enplegu Estrategiarekin bat etorrira eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa beteta.

Era berean, eta xede hori bera betetzeko, dirulaguntzak emango zaizkie enpresei, toki-entitateek sustatutako proiektu estrategikoen esparruan.

Deialdi honen azken xedea da Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

- Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua: 55
- Laneratutako pertsona-kopurua: 4.561

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 42.000.000 eurokoak dira; horietatik, 23.500.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 18.500.000 euro, 2021eko konpromiso-kredituari.

2020an exekutututako aurrekontua: 21.217.064,42 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa honek, Autonomia Erkidegoaren eta Toki Entitateen arteko Lankidetzaren Esparruaren baitan, aukera ematen die toki-entitateei beren enplegu-planak bideratzeko, Enplegu Legeak ez baitie eskumenik



ematen gai-alor horretan. Hortaz, deialdi honen bitartez, EAEk Enplegu Legearen 4. artikuluan xedatutakoa betetzen du, enplegu-politiken tokiko dimentsioari buruz.

Toki-eremua da egokiena ekoizpen-aukera berriak aurkitzeko; beraz, ezinbestekoa da enplegu-politiken diseinuan eta kudeaketa-ereduan toki-izaera hori kontuan hartzea, lurraldeko beharretara egokitu behar baitira. Izan ere, horrela sustatuko dira aukera horiek aprobetxatzen laguntzen duten jarduketak, eremu horretako enplegu-sorrerako eta enpresa-jarduerako ekimenak sustatuz eta laguntza emanez, enpleguaren oinarriko arauan ezarrita dagoen bezala, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegu Legearen testu bateginean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|--|----------------------|----------------|
| - Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua: | 52 | 55 |
| - Ekintza kopurua, tipologiaren arabera: | | |
| -. Enpleguaren sustapena: | 70 | 328 |
| -. Kontratazioa sustatzeko laguntzak: | 60 | 29 |
| -. Bestelako ekintzak: | 50 | 6 |
| - Laneratutako pertsona-kopurua: | 2.200 | 4.561 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laneratzeko enpresei zuzendutako laguntzak

2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko abenduaren 11ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzen deialdia. Laguntza horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan araututa daude. (5856 Ebazpena, 2019/12/11koa - 243. EHAA, 2019ko abenduaren 23koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905856e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laneratzeko enpresak bitarteko bat dira, hau da, Eusko Jaurlaritzak, horien bidez, politika publikoak aplikatzen ditu gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko, bai eta behar gehien duten kolektiboek eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen lan-merkatu arruntean laneratzeko laguntzeko ere, akonpainamenduaren bidezko laneratzeko- eta gizarteratzeko-prozesuen bitartez.

Laneratzeko enpresak **sortzeko** laguntzak ematen zaizkie enpresa horien sustatzaileei. Merkatu-azterlanak egiteko laguntzak dira, enpresa horiek sortzea bideragarria den ala ez jakiteko.

Laneratzeko enpresen **iraunkortasunerako** laguntzak honako hauek dira:

- Aktibo finkoetan egindako inbertsioak
- Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Produksioan laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Laneratzeko bidean laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Merkatu-azterlanak egiteko laguntza teknikoak
- Prestakuntza

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Indarrean diren laneratzeko enpresak: 45

Betetako laneratzeko-postuen kopurua: 637 laneratzeko-postu

Laneratzeko laguntzeko zenbat teknikaririk jaso duten dirulaguntza: 161

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak 10.370.000 eurokoak dira; horietatik, 2.020.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, 3.240.000 euro 2021eko konpromiso-kredituari, 3.240.000 euro 2022ko konpromiso-kredituari eta 1.870.000 euro 2023ko konpromiso-kredituari.



2020/2021/2022/2023-etan exekutaturako aurrekontua: 7.225.877,11 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa honek onura publikoko eta interes sozialeko helburua du, baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzearen eta gizarteratzearen bultzatzeko delako, horiek baitira ahulenak bizi dugun krisi sanitario eta ekonomikoaren aurrean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|--|----------------------|----------------|
| - Indarrean den laneratzeko enpresa-kopurua: : | 43 | 45 |
| - Baztertuak izateko arriskuan egonik laneratzeko enpresetan kontratatu diren pertsonak, Lanbideren laguntzarekin: | 600 | 637 |
| - Laneratzeko enpresetan kontratatu beharreko teknikari laguntzaileak, Lanbideren laguntzarekin: | 140 | 161 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laguntzak SINTEL enpresako langileei

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakia, zeinaren bidez diru-baliabideak esleitzen baitira 2020an 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak finantzatzeko, betiere laguntza horiek emateko prozedurari jarraituz, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan xedatutakoarekin bat (1433 Ebazpena, 2020/02/26koa - 47. EHAA, 2020ko martxoaren 9koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001433e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Sintel enpresaren enplegu-erregulazioko espedienteetan sartu ziren langileak berriro laneratzen laguntzea, eta langile horiei laguntza bereziak eskaintzea. Laguntzak hilero ordaintzen dira, eta langile-ohiek Gizarte Segurantzarekin izenpetu zuten hitzarmen bereziaren kostua ordaintzeko zenbateko gehigarriak izan daitezke.

Erretiroa hartzeko adina bete arte luza daitezke laguntza hauek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Langile onuradunen kopurua: 3 (2020an bat ere ez)

Aurrekontuaren exekuzioa

Zenbatekoa 242.440 eurokoa da guztira; horietatik 28.800 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkie, eta gainerakoa hurrengo ekitaldietako konpromiso-kredituari, 2021etik 2032era bitartean.

2020an exekutaturako aurrekontua: onuradun berririk ezean, ez zen gasturik izan.

Aurreko ekitaldietako onuradunengatik exekutaturako aurrekontua: 37.816,26 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lan-merkatuan gaur egun dauden inguruabarrak kontuan hartuta, laguntza hori eskatzeko eskubidea duten pertsonak egoera horretan egoteko aukera (oraindik 16 pertsona gehiago egongo lirateke eskubide horrekin) jasaten ari garen krisi-egoeren aurreko garaietan baino handiagoa da, eta, beraz, aurrekontu-aurreikuspenak ez dira handitzen, baina mantendu egiten dira, programa honetan beste pertsona batzuk sar daitezkeela irizita, eta urtean gutxienez 4 gehiago zenbatetsi dira.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emitza</u> |
|------------------------------------|----------------------|---------------|
| - Langile onuradunen kopurua: | 7 | 3 |
| - Langile onuradun berrien kopurua | 4 | 0 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegu-zentro berezietako lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko laguntzak

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2020ko otsailaren 25eko batzarrean hartutako Erabakia, zeinaren bidez onartu baitzen 2020ko laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu-zentro berezietako lanbide jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko. Laguntza horiek urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan daude aurreikusita (1434 Ebazpena 2020/02/26koa - 47.EHAA 2020ko martxoaren 9koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001434e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ematea enplegu-zentro berezietan lanbide-jardueran laguntzeko unitateetako langileak kontratatzeko: profesional askok osatutako lantaldeak dira laguntzeko unitateak, eta beren egitekoa da enplegu-zentro berezietan laguntza ematea, desgaitasuna duten pertsonen eta lanpostu bat eskuratzeko prozesuan oztopo eta eragozpen handiak dituzten pertsonen laneratzeko zailtasunak gainditzeko, baita lanpostu horietan mantentzeko ere. Desgaitasuna duten pertsonak gizartean integrazio osoa izango dutela bermatzen dute enplegu-zentro berezietako egokitze personal eta sozialeko zerbitzuek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Laguntzeko unitate-kopurua: 35

Desgaitasuna duen erabiltzaile-kopurua: 4.686

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetako laguntzak 2020an finantzatzeko, 5.000.000 euro bideratu dira.

2020an exekutaturako aurrekontua: 5.000.000 euro

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Laguntzeko unitateen programak zuzenean bermatzen du enplegu-zentro berezietako teknikarien enplegua mantenduko dela. Desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen lanpostuak eskuratzeko eta lanpostu horietan mantentzeko behar duten laguntza eta akonpainamendua emateko prozesuez arduratzen dira zentro horiek. Haien laguntzarik gabe, ezingo litzateke bermatu kolektibo horren laneratzea (eta gizarteratzea).



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|---|----------------------|----------------|
| Diruz lagundutako lanbide-jarduerari laguntzeko unitate-kopurua: | 37 | 35 |
| Desgaitasun larria izanik laguntzeko unitateak erabiltzen dituen langile-kopurua: | 4.120 | 4.686 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lehen Aukera Programa

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko abenduaren 11ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez 2020. urterako laguntzen deialdia onartzen baita gazte langabeak EAeko enpresetan kontratatzeko. Lehen Aukera programa. (5879 Ebazpena, 2019/12/11koa - 245. EHAA, 2019ko abenduaren 26koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHArri Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905879e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) kontratatzea, praktikaldia egiteko edo kontratu mugagabearekin. Kontratuak EAeko enpresek egingo dituzte, lanbide-esperientiaren bidez gazte horien enplegarritasuna hobetzeko neurri gisa, eta haien laneratzea egonkortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Lehen lana eskuratu duen pertsona-kopurua: 315

Aurrekontuaren exekuzioa

1. Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.000.000 eurokoak; horietatik, 2.153.846 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.846.154 euro, 2021eko konpromiso-kredituari.
2. Deialdi hau finantzatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak honela banatuko dira:
 - a) 3.846.154 euro lan-kontratu mugagabeak eta praktikaldiko kontratuak finantzatzeko. Aurrekontu horretatik 2.000.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.846.154 euro, 2021eko konpromiso-kredituari.
 - b) 153.846 euro 12. artikuluan ezarritako entitate laguntzaileek lan-eskaintzak jaso, erregistratu eta kudeatzeko, bai eta trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko ere, 2020ko konpromiso-kredituaren kontura.

2020an exekutututako aurrekontua:

- a) 1.280.956,56 € (52% emandako zenbatekotik) eta
- b) 39.200 € (100% emandako zenbatekotik)

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa honen helburua da gazteen kolektiboaren langabezia murriztea, pandemiaren ondorioz jasaten dugun krisi ekonomiko berri honek gehien eragiten dien biztanle-taldea den aldetik. Hain zuzen ere,



gazteen langabezia murriztea da gure gizartearen erronka nagusietako bat, eta erronka horri aurre egin behar diote bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, parte hartzen duten antolakunde eta sektore guztien laguntzari zein koordinazioari esker, baita ekimen pribatuak egokiak diren neurriak diseinatzean, hartzean eta martxan jartzean duen partaidetzari esker ere.

Esperientziarik eza da gazteek lan-merkatuan sartzeko orduan duten zailtasunik handiena. Hori dela eta, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezen. Horretarako, esperientzia biziko dute lanpostuan, eta, horrenbestez, lana aurkitzeko edo mantentzeko aukerak hobetuko dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|--|----------------------|----------------|
| - Gazteei egin beharreko praktikaldiko kontratu-kopurua: | 800 | 226 |
| - Gazteei egin beharreko kontratu mugagabeen kopurua: | 80 | 89 |
| - Parte hartu duen enpresa-kopurua: | 450 | 291 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Tokiko entitateek gazteak kontratatzea, 2014-2020 eperako Gazte Enpleguaren Programa Operatiboaren esparruan

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2020ko ekainaren 24ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen 2020ko ekitaldiko laguntzen deialdia, toki-entitateek gazteak kontrata ditzaten 2014-2020 eperako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan. (2587 Ebazpena, 2020/06/24koa - 129. EHAA, 2020ko uztailaren 2koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2002587e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) kontratatzea beren titulazioarekin lotutako lanpostuetarako, beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia txikia edo batere esperientziarik ez duten heinean eta bai Lanbiden bai Gazte Bermerako Sistemaren izena emanda dauden heinean. Kontratuak toki-entitateek egingo dituzte, esperientzia profesionalaren bidez gazte horien enplegarritasuna hobetzeko, eta, hartara, haien laneratzea egonkortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

- Eskaera-kopurua: 71
- Kontratu-kopurua: 222 emandakoak

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko, 6.500.000 euro bideratu dira, 2020ko ordainketa-kredituaren kontura.

2020an exekutututako aurrekontua: 4.168.000,00 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa honen helburua da gazteen kolektiboaren langabezia murriztea, pandemiaren ondorioz jasaten dugun krisi ekonomiko berri honek gehien eragiten dien biztanle-taldea den aldetik.. Hain zuzen ere, gazteen langabezia murriztea da gure gizartearen erronka nagusietako bat, eta erronka horri aurre egin behar diote bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, parte hartzen duten antolakunde eta sektore guztien laguntzari zein koordinazioari esker, baita ekimen pribatuak egokiak diren neurriak diseinatzean, hartzean eta martxan jartzean duen partaidetzari esker ere.



Esperientziarik eza da gazteek lan-merkatuan sartzeko orduan duten zailtasunik handiena. Hori dela eta, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezen. Horretarako, esperientzia biziko dute lanpostuan, eta, horrenbestez, lana aurkitzeko edo mantentzeko aukerak hobetuko dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|---|----------------------|----------------|
| Gazte Bermerako Sistemari inskribatutakoei egin beharreko kontratuko kopurua: | 400 | 222 |
| Parte hartu duen toki-entitateen kopurua: | 140 | 71 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Aparteko dirulaguntzetarako deialdia; dirulaguntzen hartzaileak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda dituztenak Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2020ko apirilaren 7ko bileran hartutako Erabakiaren bitartez, aparteko dirulaguntzetarako deialdi bat onartu du, norberaren konturako langileentzat eta langile autonomoentzat; zehazki, baldintza hau betetzen dutenentzat: haien jarduerak etenda geratu izana, Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma egoera dela eta (1852 Ebazpena, 2020/04/08koa - 71. EHAA, 2020ko apirilaren 15koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001852e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da arautzea nola eman behar diren norberaren konturako langileentzako eta langile autonomoentzako laguntzak, zuzeneko galera ekonomikoa arintzea xede dutenak; laguntzen hartzaileek jarduera ekonomikoa etenda izan behar dute Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma egoera dela eta, eta laguntza hauek jarduerari eusten laguntzeko emango zaizkie.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

- Erregistraturako eskaeren kopurua: 18.289
- Espediente guztien kopurua: 15.702
- Aldeko ebazpenen kopurua: 6.380

Aurrekontuaren exekuzioa

Aparteko deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 16.000.000 eurokoak izan ziren azkenean, 2020 ordainketa-kredituaren kargura, eta 2020ko urriaren 14ko EHAAng argitaratu zen, irailaren 28ko Ebazpenaren bidez, kreditua agortu zela.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Covid-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzearen ondorioz, negozioak ixteak berekin ekarriko du enpresaburu askok negozio-lokalen alokairua ordaindu ezina, hain zuzen ere etendako jarduera ekonomikoak ematen baitio aukera negozioa ustiatzen duen errentariari errenta ordaintzeko behar dituen diru-sarrerak lortzeko.



Deialdi honen bidez Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lagundu nahi dute negozioak aldi baterako ixteak zuzenean eragindako galera ekonomikoa arintzen, eta, ahal den neurrian, halako negozioak behin betiko itxi beharra ekiditen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aparteko deialdia denez, ez dago adierazlerik Diru-laguntzen Plan Estrategikoan.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Aparteko dirulaguntzetarako deialdia; dirulaguntzen hartzaileak laneratzeko enpresak eta enplegu-zentro bereziak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda edo murriztuta dituztenak COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2020ko uztailaren 1eko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez, aparteko dirulaguntzetarako deialdi bat onartu du, laneratzeko enpresentzat eta enplegu-zentro berezientzat, baldin eta jarduerak eten edo murriztu behar izan badituzte, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma egoera dela eta. (2650 Ebazpena, 2020/07/01koa - 132. EHAA, 2020ko uztailaren 7koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001852e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da arautzea nola eman behar diren Euskal Autonomia Erkidegoko laneratzeko enpresentzako eta enplegu-zentro berezientzako laguntzak, langileei ordaindutako soldata-osagarriengatik.

Ordaindutako soldata-osagarriek ezinbestean izan behar dute COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma egoera dela-eta edo COVID-19ak langile horiengan eragindako osasun-egoera dela-eta jarduerak murriztu edo eten behar izatearen ondorioz ordaindutakoak. Horrek guztiak hau du xede: jarduerari eta lanpostuei eusten laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

- Erregistraturako eskaeren kopurua: 58
- Aldeko ebazpenen kopurua: 58

Aurrekontuaren exekuzioa

Aparteko deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 6.000.000 eurokoak izan ziren, 2020 ordainketa-kredituaren kargura, eta, azkenean, 1.709.412,80 € gauzatu ziren.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Covid-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzearen ondorioz, jarduerak osorik edo partzialki eteteak, edo jarduerak murrizteak, entitate horietako askok (Enplegu-zentru bereziak eta Laneratzeko enpresak) lanpostu guztiei eutsi ezin izatea eragin dezake.



Deialdi honen bidez lagundu nahi da desgaitasuna duten eta/edo bazterketa-egoeran dauden pertsonak betetzen dituzten lanpostuei eusten, eta halako entitateek jarduera behin betiko eten beharra ekiditen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aparteko deialdia denez, ez dago adierazlerik Diru-laguntzen Plan Estrategikoan.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lanbide-orientazioko ekintzetarako laguntzak

2.- Araua

Administrazio Kontseiluak 2018ko abenduaren 26an egindako bileran onartutako Adopzio Akordioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan lanbide-orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko 2019-2021eko laguntzen deialdia onartzen duena. (Argitalpen-ebazpena: 2018/12/26 -EHAA, 250. zk., 2018ko abenduaren 31koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018006418&BOPV_HIDE_CALENDAR=true

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzeko laguntza ekonomikoak dira, hiru kapitulutan banatuta: biztanleria osoari zuzendutako lanbide-orientazioko ekintzak (I.kap), desabantaila-egoeran dauden kolektiboetako pertsoneri zuzendutako lanbide-orientazioko ekintzak (II.kap) eta biztanleriari oro har zuzendutako enplegu-zentroko zerbitzua ematea (III.kap).

Erabaki honen bitartez, enplegu-zentroyen ezaugarriak zehazten dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuti kanpoko entitate espezializatuen laguntza behar duten kolektiboak zehazten dira, desabantaila-egoeran daudenak, baita haiei zuzendutako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak ere, eta haiek finantzatzeko deialdia egiten da.

Diruz lagun daitekeen jarduera: 2019ko uztaila-2021eko uztaila

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

2020an lortutako emaitzak

Onuradunak:

| Jarduketa-mota | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|---------------------------------------|---------------|---------------|---------------|
| Orientazio orokorra | 9.913 | 11.512 | 21.425 |
| Gizarte-bazterketako egoeran daudenak | 4.675 | 4.646 | 9.321 |
| Desgaitasun bat duten pertsonak | 1.895 | 1.117 | 3.012 |
| Ijitoak | 457 | 538 | 995 |
| Presoak | 263 | 21 | 284 |
| Enplegu-zentroa | 7.707 | 6.629 | 14.336 |
| Guztira | 24.910 | 24.463 | 49.373 |



Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 15.382.080 eurokoak dira; horietatik, 3.845.520 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2019ko aurrekontuko ordainketa-kredituari dagozkie, 7.691.040 euro 2020ko konpromiso-kredituari, eta 3.845.520 euro, 2021eko konpromiso-kredituari.

2020an exekutatutako aurrekontua: 7.454.290 € (96,92%)

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lanbiden inskribatutako pertsoneri arreta emateko mekanismoa da; lanbide-orientazioko prozesuetan esperientzia egiaztatua duten entitateen bidez ematen da arreta, bulegoetan egindako orientazio-prozesuak indartzeko.

Zerbitzua pertsonen beharretara hobeto egokitzeko, entitate espezializatu batzuek arreta ematen diete laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboko pertsoneri. Azken kasu horretan, laguntzarik izan ezean, arreta pertsonalizatua izango lukete kolektib

Azkenik, orientazio-ekintzak indartzeko, dirulaguntzak ematen zaizkie enplegu-zentroei, non enplegua bilatzeko prozesuan dauden pertsonak tresna teknologikoak erabil ditzaketen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> 2019-2021 | <u>Emaitza</u> <u>2020</u> |
|--|-----------------------------------|-------------------------------|
| Entitate laguntzaileek arreta emandako pertsonen kopurua | 50.000 | 35.037 |
| Enplegu-zentroek arreta emandako pertsonen kopurua | 40.000 | 14.336 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteen Itzulera programa

2.- Araua

Erabakia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2019ko abenduaren 11ko bilkuran hartutakoa. Horren bidez, gazteak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzeke 2020rako gazteak itzultzeko laguntzen deialdia onartzen da. (2019ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905886e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua honako hauek sustatzea da:

- a) Euskal lan-merkatuan sartzea EAerekin loturaren bat duten 35 urtetik beherako gazteak, itzuli nahi dutenak edo azken 3 hilabeteetan itzuli direnak.
- b) Euskal enpresetan laneratzea beren kompetentzia linguistikoa eta profesionalak EAetik kanpo eskuratu edo handitu dituzten gazteak, eta, aldi berean, enpresen lehiakortasuna hobetzea.

Horretarako, euskal enpresei kontrataziorako dirulaguntzak ematen zaizkie, eta laguntzak ematen zaizkie oraindik itzuli ez diren gazte kontratatuei, itzulerari lotutako joan-etorrien gastuetarako.

Kontratatuko diren pertsonak 35 urtekoak edo gutxiagokoak izan behar dute, azken 12 hilabeteetan EAEn lanik egin gabeak eta kanpoan bizitakoak. Era berean, EAerekiko lotura bat izan behar dute, dela bertan jaio direlako, dela aurrez aurreko ikasketak egin eta titulu ofizial bat lortu dutelako, edo irten baino bi urte lehenago administrazio-auzotasuna izan zutelako.

Lan-kontratua mugagabea edo aldi baterakoa izango da, gutxienez 12 hilabetekoa, lanaldi osokoa edo partzialekoa, baina inoiz ere ez ezarritako lanaldiaren %70etik beherakoa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartearen

Lortutako emaitzak

- Enpresa-eskatzaileen kopurua: 13
- Eskatutako kontratazio-postuen kopurua: 15
- Enpresa onuradunen kopurua: 10
- Gazteei egindako kontratu-kopurua: 10
- Lekualdaketagatik emandako laguntza-kopurua: 5
- Lekualdaketagatik emandako laguntza-kopurua: 4



Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.770.000 eurokoak dira; horietatik, 1.085.500 euro 2020ko aurrekontuko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 584.500 euro, 2021ko konpromiso-kredituari.

2020ko aurrekontu exekutatu arrunta:

89.144,25.- €- Kontrataziorako laguntzak

2.550.- €- Lekualdaketarako laguntzak

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa hori 2017. urtearen amaieran jarri zen abian, xede zuen sustatzea gazteak itzultzea eta EAEn lantokiak dituzten enpresek gazteak kontratatzea.

Sustapenerako hainbat jarduera egin badira ere, kontratazioen emaitzak urriak izan dira. Zeren eta, alde batetik, lan-eskaintza txikiagoa izan da Itzulera-fitxategian izena emandako pertsonen kopurua bainot; eta, bestetik, kasu batzuetan, eskaintzak hutsik geratu dira, hautagai egokirik ez zegoelako.

2019ko deialdian, 4 urteko ziklo horretako daturik handienak lortu ziren. 2020an, berriz, murriztu egin da diruz lagun daitezkeen eskaeren eta kontratuen kopurua (COVIDek sortutako osasun-krisialdiak enpresen jardueran izandako eraginagatik).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|---|----------------------|----------------|
| Kontratututako gazte langabeen kopurua: | 120 | 10 |
| Joan-etorrietarako emandako laguntza-kopurua: | 120 | 10 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lanertzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzeko dirulaguntzak (30 urte edo gehiago izanik luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak)

2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2019ko abenduaren 11ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen 2020ko laguntzen deialdia, EAeko enpresen kanpoko lantokietan luzaroko langabezia dauden 30 urteko edo gehiagoko langabeak kontratatzeko. (2019ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.)..

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905887e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deskribapena: EAeko enpresentzako laguntzak arautzea, 30 urte edo gehiago izanik luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak kontratatzeko, kontratu mugagabeen bidez edo 6 hilabete edo gehiagoko iraupena duten aldi baterako kontratuen bidez, pertsona horiek euskal lan-merkatuan sartzen laguntzeko neurri gisa. Kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izango dira; azken kasu horretan, inoiz ez dira izango ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoak.

Diruz lagundutako zenbatekoak oinarritzat hartzen ditu urteko ordainsari gordinaren gutxieneko zenbateko batzuk, eta kontratuaren iraupenaren eta kontratatutako pertsonaren titulazio-mailaren arabera finkatzen da. Laguntzak handiagoak dira kontratatzen diren iraupen luzeko langabeek honako ezaugarri hauek badituzte: a) emakumeak edo 45 urteko edo gehiagoko pertsonak izatea (% 15); b) 2019an LANBIDEn kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntza-ekintza bat amaitu duten pertsonak izatea, baldin eta kontratuak 12 hilabeteko iraupena badu gutxienez eta lanaldia ezarritako lanaldi osoaren % 70era iristen bada gutxienez (+% 10); c) kontratatutako pertsonak a) eta b) ataletako baldintzak betetzen baditu; dirulaguntzaren zenbatekoa %20 gehituko da gehienez ere.

Ilido hori honako helburu hauekin garatzen da:

- EAEn bizi, eta gaur egun langabezia egonik luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak (360 egun azken 540 egunetan) egoera hori utz dezaten eta euskal lan-merkatuan txerta daitezen sustatzea.
- Enpresek luzaroko langabezia-egoeran dauden pertsonak kalitatezko enpleguekin kontrata ditzaten sustatzea.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Enpresa eskatzaileen kopurua: 43
 Eskatutako kontratu-kopurua: 47
 Enpresa onuradunen kopurua: 35
 Emandako kontratu-kopurua: 35

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.410.000 eurokoak dira; horietatik, 705.000 euro 2020ko aurrekontu arruntari dagozkio, eta beste 705.000 euroak, 2021ko aurrekontuko konpromiso-kredituari.

2020an exekutaturako aurrekontua: 156.123,72.-€

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Deialdia onartzean, euskal lan-merkatuaren ezaugarri berezi bati erantzun nahi zaio, non langabetu gehienak luzaroko langabezia-egoeran baitaude.

Bestalde, iraupen luzeko langabeak lan-merkatuan sartzeari buruzko Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioak (2016/C 67/01) honakoa adierazten du iraupen luzeko langabeziari buruz: bata, pairatzen dutenei eragiten diela; bi, Batasuneko ekonomien hazkunde-ahalmena murrizten duela; hiru, areagotzen dituela gizarte-bazterketako arriskua, pobrezia eta desberdintasuna; eta, lau, handitzen dituela gizarte-zerbitzuen eta finantza publikoen gastuak. Halaber, iraupen luzeko langabeziak berekin dakar diru-sarrerak galtzea, lanbide-gaitasunak okertzea, osasun-arazoak areagotzea eta familien pobrezia handitzea.

Aurrekoa oinarri hartuta, enplegu-politika gisa, garrantzi sozialekotzat eta lehentasunezko interesekotzat jotzen da, batetik, enpresek iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden pertsonak kontrata ditzaten sustatzea; eta, bestetik, lan-merkatuan sar daitezen bultzatzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|-----------------------------|----------------------|----------------|
| Pertsona onuradunen kopurua | 195 | 35 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegu lagundurako jardueretarako laguntzak

2.- Araua

2020ko otsailaren 25eko batzarrean hartutako Erabakiaren bidez, onartu egin du enplegu lagunduko jarduketetara bideratutako laguntzen 2020ko deialdia, urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegagarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dira. (1555 Ebazpena, 2020/02/26koa -EHAA, 2020ko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001555e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deskribapena: Enplegu lagunduko jarduerak egiteko laguntzak eta pizgarriak arautzen ditu, desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean laneratzeko tresna izateko eta enpresei laguntzeko, bai kontratatu aurretik, bai pertsona lanpostua betetzen hasi ondoren. Hala, enplegu lagunduko unitateetako profesional espezializatuek (lan-arloko prospekziogileek eta prestatzaileek) ematen dute laguntza hori, zenbait jarduera integraturen bidez.

Helburua: Enplegu lagunduko unitateen jarduera diruz laguntzeko, konpromiso batzuk hartu eta helburu batzuk bete behar dira, hala nola, desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen enpleguko eta laneratzeko aukeren prospekzioak egitea. Pertsona horiek Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon behar dute, enplegu-eskatzaille gisa. Honako pertsona hauen laneratzeari lehenetsiko da:

- desgaitasun intelektuala, buru-gaixotasuna edo garuneko paralisia duten pertsonak, % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-gradua aitortua dutenak.
- desgaitasun fisikoa edo zentzumenezkoa duten pertsonak, % 65eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua onartua dutenak; edo gorak edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonak, %33ko edo hortik gorako minusbalotasun-gradua onartua dutenak.

Desgaitasuna duten emakumeen laneratzeari bultzatzeko, % 10 handituko da diru-laguntzaren zenbatekoa, baldin eta emakume bat kontratatzen baldin bada.

Halaber, zehaztutako desgaitasun mota horiek dituzten langileak, enplegu-zentro berezietan aritutakoak, lan-merkatu arruntean laneratzeari aurreikusten da, bai eta dagokion deialdiaren aurreko urteetan laneratutako pertsonari eta enpresei laguntzea ere.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak (aurkeztutako justifikazio-memoretan oinarrituta, berrikusi egin behar dira):

Enplegu lagunduko ekipu kopurua: 9

Desgaitasuna duten pertsonen egindako kontratu-kopurua: 64 (Eskabideetan baietsiak: 85)

Desgaitasunak dituzten zenbat pertsona dauden jarraipen-prozesuan: 171 (Eskabideetan baietsiak 192)

Enpresetara egindako bisita-kopurua: 1.455 (Eskabideetan baietsiak: 1.693)

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira; horietatik, 500.000 euro 2020ko aurrekontu arruntari dagozkio, eta beste 500.000 euro 2021ko konpromiso-kredituari. 2020an exekutatutako aurrekontua: 500.000 € (100%)

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

2020an, aurreikusitako laneratzeen % 75 lortu da (64/85). Eta enpleguko jarraipena egin zaie aurreikusitako pertsonen % 94ri (180/192). 2020an lortutako kontratuei dagokienez, hautsi egin da aurreko bi urteetan lortutako helburuen estalduraren joera positiboa (non helburuen % 90 baino gehiago lortu baitzen). Nahiz eta Covid-19ak eragindako pandemiak eragin negatiboa izan duen Enplegu lagunduan, nabarmentzen da lortutako kontratuen banaketak ez duela ia aldaketarik izan aurreko ekitaldien aldean: izaera mugagabeko kontratuak % 24 izan dira (15 kontratu) edo aldi baterakoak % 76 (48 kontratu). Hala, justifikatutako 64 kontratuetatik 47k gutxienez (hots, 4/3) 12 hilabeteko iraupena dute.

Gizonen aldean, desgaitasunen bat duten emakumeek presentzia txikiagoa dute lan-merkatuan. Hala ere, ez dago desoreka handirik 2020an lortutako kontratu berrietan. Izan ere, 2020an lortutako kontratuen % 59 gizonekin sinatu dira, eta % 41 emakumeekin.

Enplegu lagundurako jarduketek desgaitasuna duten pertsonen presentzia sustatzen dute lan-ingurune normalizatuetan. Aparte, beste ekintza publiko batzuk ere gehitu behar dira, desgaitasuna duten pertsonen laneratzea errazten dutenak. Hauei esker, Estatu osoaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera- eta enplegu-tasa altuenetariko bat da; eta desgaitasuna duten pertsonen langabezia-tasa baxuenetako bat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|---|----------------------|----------------|
| Enplegu lagunduko talde kopurua: | 9 | 9 |
| Desgaitasunak dituzten zenbat pertsona kontratatu diren: | 65 | 64 |
| Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko jarraipenen kopurua | 145 | 180 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Covid-19k eragindako osasun-krisiaren kudeaketarako alarma-egoerarengatik, haien jarduerak eten edo bertan behera geratu zaizkien kulturako profesionalentzako laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko apirilaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, aparteko dirulaguntzetarako deialdi bat argitaratzeko dena, kulturako profesionalentzat, Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoerarengatik jarduera eten edo bertan behera geratu zaieneztat.

EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 19koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2020ko apirilaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, aparteko dirulaguntzetarako deialdi bat argitaratzeko dena, kulturako pertsona profesionalentzat, COVID- 19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoerarengatik jarduera eten edo bertan behera geratu zaieneztat.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/05/2001956e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/05/2001956e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Artearen eta kulturaren arloan banakako profesional moduan aritzen diren pertsona profesionalen diru-sarrerarik eza arintzeko laguntzen arautzea, baldin eta jarduera eten edo bertan behera geratu bazaie Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoerarengatik, era horretan beren jarduerari eutsi ahal izan diezaioten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2,5 milioi euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, aurrekontuaren betearazpena % 17,7koa izan zen, 442.643,14 eurokoa, eta 109 onuradun izan ziren (104 hasierako ebazpenetan, eta 5 gehiago jarritako 5 errekurtsio baietsi ondoren). Erabilgarritasuna eta inpaktu soziala oso mugatuak izan dira. Lehenik eta behin, eta aurrekontu-zuzkidurari oinarri hartuta, laguntza-eskaerak murriztuak izan ziren. Bigarrenik, hedadura mugatua izan da kultura- eta arte-sektoreko pertsonak baldintza guztiak betetzeko zailtasunak dituztelako eta, gaur egun, emandako diru-laguntzak berrikuste-fasean daude.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aparteko deialdia denez, ez dago adierazlerik Diru-laguntzen Plan Estrategikoan.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria

2.- Araua

- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa
- 147/2010 DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
- 2/2010 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzkoa.
- 2001eko otsailaren 14ko AGINDUA, Oinarrizko Errentaren titularrak eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzen onuradunak lanean hasteko pizgarriak ezartzen dituenak.
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperresteka)

- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa:
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/12/0807235a.pdf>
- 147/2010 ERREGE-DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa:
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/06/1003020a.pdf>
- 2/2010 ERREGE-DEKRETUA, urtarrilaren 12koa:
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/01/1000216a.pdf>
- AGINDUA, 2001eko otsailaren 14koa: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2001/02/0100962a.pdf>
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa:
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2011/12/1105924a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izeneko prestazio ekonomikoa aldizkakoa eta eskubide subjektibokoa da, bizikidetzaren batean oinarrizko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei zuzendua.

Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari aldizkako prestazio ekonomikoa da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) osagarria. Etxebizitzaren edo ohiko bizilekuaren alokairu-gastuak ordaintzea du xede, modalitatea edozein dela ere: errentamendua, azpierreantamendua, baterako errentamendua, ostatatzea eta logelen alokairua.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Espedienteen/DSBERen titularren batezbestekoa: 53.623

Espedienteen/EGPOren titularren batezbestekoa: 25.133

Onuradunen batezbestekoa: 96.371

Aurrekontuaren exekuzioa

DBE eta EGPOra bideratutako kreditua 2020an: 449.500.000,00 €

201920an exekutatutako aurrekontua: 460.376.601 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:

Euskal gizarteko kolektiborik kalteberenak babesteko programa da, eta bere helburua lortu du, 53.500 pertsona baino gehiago babestu baititu 2020an.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ez dagokio, ez baita berez dirulaguntza.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Proiektu bereziak (Gizarteratzea + Formakuntza)

2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 11koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2020rako laguntzen deialdia, lan egiten duten eta enplegua lortzeko edo mantentzeko zailtasunak dituzten langabetuentzako gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu bereziak garatzeko, 2019ko abenduaren 26ko EHAAAn argitaratua.

Hutsen zuzenketa: EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 9koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, honako ebazpen honen hutsak zuzentzen dituena: ebazpena, 2019ko abenduaren 11koa, zeinaren bidez argitaratzen baita 2020rako diru-laguntzen deialdia, landunak eta laneratzeko edo mantentzeko zailtasunak dituzten langabeak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu bereziak garatzeko, 2020ko urtarrilaren 22ko EHAAAn argitaratua.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHArri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/12/1905877a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da 2020. urterako proiektu bereziak finantzatzeko laguntzak arautzea, hala nola laneratzeko edo enplegarritasuna hobetzeko jarduera integralak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin hainbat esku-hartze mota bateratzen edo koordinatzen dituztenak.

Proiektu bereziek prestakuntza-ekintzak, orientazioa, enplegua edo horietan parte hartzen duten pertsonen enplegarritasuna nabarmen hobetzen duen beste edozein neurri konbinatzen dituzte:

- a) Prestakuntza, bai lanbide-gaitasunei dagokienez, bai oinarrizko gaitasunei dagokienez, edo Prestakuntza Espezialitateen Katalogoan erregistratutako eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako prestakuntzei dagokienez. Lanpostuan ikasteko prestakuntza-ekintzak ere sartu ahal izango dira, enpleguarekin txandakatutako prestakuntzaren bidez.
- b) Enplegu-aukeren prospekzioa, balizko eragile kontratatzaileak harremanetan jartzea eta inplikatzeko ahalbidetuko duena, lan-merkatuaren beharrak identifikatuz eta parte-hartzaileen kontratazioa bultzatuz.
- c) Lanbide-orientazioko eta laneratzeko ekintzak, laneratzeko itinera pertsonalizatua egitea sustatzen dutenak, parte-hartzaileen jarraipen pertsonala eta emaitzen ebaluazioa egin ahal izateko.
- d) Parte-hartzaileak kontratatzeko laguntzak. Deialdi honen babesean diru-laguntza jaso ahal izango dute gutxienez 6 hilabeteko iraupena duten kontratuak. Lanaldi osokoak edo lanaldi



partzialekoak izan daitezke; azken kasu horretan, inoiz ez dira izango ezarritako lanaldiaren% 70 baino txikiagoak.

- e) Hartzaile-taldearen enplegagarritasuna hobetzea helburu duen beste edozein jarduera.

Proiektu berezien ekintzak laneratzeko zailtasun espezifikoak dituzten kolektiboetara zuzenduta daude:

1.- Langabeak:

- a) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren artatutako pertsonak, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen esparruan.
- b) Gazteak, arreta berezia jarriz prestakuntza-defizita dutenei.
- c) Emakumeak.
- d) Iraupen luzeko langabeak.
- e) 45 urtetik gorakoak.
- f) Familia-erantzukizunak dituzten pertsonak.
- g) Desgaitasuna duten pertsonak.
- h) Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak.
- i) Etorrinak.
- j) Langile landunak edo langabeak, atzerrian bizi direnak eta Euskadira itzultzeko asmoa duten pertsonen erregistroan izena emanda daudenak.

2.- Lan-merkatuan jarraitzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza-premia espezifikoak dituzten pertsona landunak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartearen

Lortutako emaitzak:

167 prestakuntza-ekintza, 1.277 pertsonari zuzendutako 36 proiektu integraletan.

Aurrekontua gauzatzea

4.000.000 euro; horietatik 2.000.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2.000.000 euro, berriz, 2021eko konpromiso-kredituari.

Gauzatutako aurrekontua: 1.726.673,28 €

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Deialdi honen babesean diruz lagundutako jardueren bidez, gizarteratzeko edo laneratzeko zailtasun handienak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunei eta langabeei prestakuntza bat ematen zaie, lan-merkatuan sartzea bermatuko duten lan-aktibazioko ekintzekin batera.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emitza</u> |
|--|----------------------|---------------|
| • Gutxienez 1. edo 2. mailako kualifikazioari buruzko titulazioa lortzearekin prestakuntza-ibilbideak amaitzen dituzten pertsonak: | % 50 | (*) |
| • Aurrez jaso duten prestakuntzarekin lotutako jarduera-sektorea duten enpresetan kontratatutako pertsonak: | % 30 | (*) |

(*) Proiektua gauzatzen ari da, eta, beraz, ezin da daturik eman une honetan.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak (82/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duena)

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko ekainaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, langile langabeentzako 2020-2022 prestakuntza-eskaintza finantzatzeko diru-laguntzen deialdia argitaratzeko dena, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan (2020ko ekainaren 30eko EHAA)

Hutsen zuzenketak, 2020ko uztailaren 17ko, 2020ko uztailaren 29ko eta 2020ko urriaren 30eko EHAAn argitaratuak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/06/2002555a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako Lanbide Heziketa da enplegu-zerbitzu publikoek beren zerbitzu-zorroan langileei eskaintzen dieten tresna nagusietako bat, eta modu erabakigarrian laguntzen die lan-merkatuan sartzen edo enplegarritasuna hobetzen. Prestakuntza-ekintza horien bidez, ikasleek beren gaitasun profesionalak eta pertsonalak eskuratzea, hobetzea edo eguneratzea lortzen dute, eta lanpostuan esperientzia bat lortzen dute, lanekoa ez den praktika bat eginez, hala badagokio. Praktika horrek enpresan jasota uzten du pertsona horrek prestakuntza jaso duen lanbide-profiletan lan egiteko aukerak dituela.

Testuinguru horretan, akordio honetan finantzatutako prestakuntza-ekintzen bidez, aukera ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko langabeek, lehentasunez, prestakuntza-eskaintza zabala izan dezaten, enplegarritasuna hobetzen modu eraginkorrean laguntzeko.

Halaber, eskaintza honen helburua da langileek egindako prestakuntza egiaztatzeko modukoa izatea eta eskuratutako gaitasunak Profesionaltasun Ziurtagirien Euskal Erregistroan erregistratzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

2020an 515 prestakuntza-ekintza egin behar dira, eta prestakuntza jaso duten 7.132 pertsona, 2018-2020 aldian guztira prestatu beharreko 38.795 lagunentzat onartutako 2.493 ekintzetatik.



Aurrekontua gauzatzea

Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoak 66.000.000 eurokoak dira; horietatik, 16.500.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkio, 33.000.000 euro 2019ko konpromiso-kredituari eta 16.500.000 euro 2020ko konpromiso-kredituari.

2020rako gauzatutako aurrekontua: 13.264.134,60 €

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Enplegurako Lanbide Heziketa da lan-merkatuan sartzeko eta langileen enplegarritasuna hobetzen modu erabakigarrian laguntzen duen tresnetako bat. Testuinguru horretan, akordio honetan finantzatutako prestakuntza-ekintzen bidez, aukera ematen zaie Euskal Autonomia Erkidegoko langabeek prestakuntza-eskaintza zabala izan dezaten, beren enplegarritasuna hobetzen modu eraginkorrean laguntzeko, egindako prestakuntza egiaztagarria izan dadin eta eskuratutako gaitasunak Lehiaren Erregistroan erregistra daitezela.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|--|----------------------|----------------|
| Gaitasun giltzarrietan eta zeharkakoetan prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua | 2.600 | 1.467 |
| Profesionaltasun-ziurtagirian prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua | 14.000 | 3.551 |
| Prestakuntza ez-egiaztagarrian prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua | 4.500 | 3.581 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

HEZIBI programa – Formakuntza eta txandakako lana gazteentzat

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko ekainaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan aurreikusitako laguntzak 2020ko ekitaldian finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzen dira. Agindu horren bidez, Gazteen Prestakuntzako Aldibereko Lan-oinarrien 2020ko EHAA ezartzen da, Gazteen Prestakuntzako Aldaketa-programan.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/06/2002553a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enpleguarekin txandakatutako lanbide-heziketako eredia. Lanbide-heziketako ikasleei eta gazte langabeei zuzendutako lan-esperientziaren eta enpresen esparruko beste ikastun batzuen arloko prestakuntza-ekintzak, lanbide-gaitasunak hobetzeko helburuarekin, profesionaltasun-ziurtagiri bat edo hasierako lanbide-heziketako titulu bat lortuz enpresako lan-jarduera ordainduarekin txandakatuta, enpresen beharrak langileek eskuratutako gaitasunetara egokitzen lagunduz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Prestakuntza dualean kontratatutako 346 pertsonak Hezibi diru-laguntza jaso dute 2020an.

Aurrekontu gauzatzea

2.300.000 euro; horietatik 690.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.610.000 euro 2021eko konpromiso-kredituari.

2020rako gauzatutako aurrekontua: 2020: 967.528,81 €

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Formakuntza dualak zuzeneko eragina du LHko titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat ikasten ari diren gazteen enplegarritasunean; izan ere, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratu baten bidez kontratatzen dira, eta horrek abantaila guztiak dakarzkie bai enpresari bai langileei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak adierazlea

| <u>Adierazkea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emitza</u> |
|--|----------------------|---------------|
| Formakuntzan kontratatutako pertsona kopurua | 1.000 | 346 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko diru-laguntzen deialdia

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko ekainaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko diru-laguntzen deialdia, 2020rako. EHAA, 2020ko uztailaren 20koa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/07/2002846a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek langileen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko programatutako prestakuntza-ekintzak (prestakuntza-ekintza estrategikoak) garatzeko diru-laguntzak.

Enpresatzat hartzen da jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen edozein erakunde, haren izaera juridikoa eta finantzaketa-modua edozein izanik ere.

Ekintza estrategikoak dira enpresaren proiektuarekin zuzenean lotuta daudenak eta beharren diagnostikoan edo antzeko dokumentu batean oinarrituta egon daitezkeenak, aurkeztutako ekintzen eta xede dituzten langileen lehentasuna adierazten dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

7.665 pertsona prestatu dira. 130 enpresa parte-hartzaile.

Aurrekontua gauzatzea

Deialdi hau finantzatzeko erabiliko diren baliabide ekonomikoak 3.200.000 eurokoak izango dira gehienez ere; horietatik 1.600.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.600.000 euro 2021eko konpromiso-kredituari.

2020rako gauzatutako aurrekontua: 1.538.979,80 €

Erabilgarria eta Gizarte-eragina:

Enpresentzako ekintza estrategikoek diru-laguntzak eskatzen dituzten enpresetan bertan lan egiten duten pertsonen prestakuntzan eragitea lortzen dute; beraz, ematen den prestakuntzak enpresak identifikatutako prestakuntza-helburuak betetzen ditu. Langileak bere lana hobeto garatzeko eta enpresak bere eguneratze-



prozesuan eta produkzio-bilakaeran egin behar dituen aldaketa teknologikoetara eta prozesu-aldaketetara egokitzeko aukera ematen dion prestakuntza jasotzen du.

Langileei beren lan-bizitzan zehar behar duten kualifikazioa emateaz gain, prestakuntza lehentasunezko balio estrategikoa da aldaketa teknologiko, ekonomiko eta sozialeko prozesuetan, eta, horregatik, funtsezko tresna da enpleguan eta gizarte-kohesioan erabilgarritasun hori lortzeko. Are gehiago, COVID-19k eragindako krisiaren ondoriozko nahasmendu ekonomiko eta sozial masiboa epe labur eta ertainean EAEko enpresa eta biztanleria aktibo gehienei eragiten ari den eta eragiten jarraituko duen une honetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emaitza</u> |
|---|----------------------|----------------|
| Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua | 12.000 | 7.665 |
| Parte hartu duten enpresen kopurua | 200 | 130 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntza

2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 11koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko langabeentzako kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzetarako 2020. urterako diru-laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan. 2019ko abenduaren 23ko EHAA..

Aldaketa-ebazpena: EBAZPENA, 2020ko otsailaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko langabeentzako 2020ko prestakuntza-ekintzak, kontratatze konpromisoa dutenak, egiteko diru-laguntzetarako deialdiaren aldaketa, maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu profesionalerako erakunde autonomoa arautzen da. EHAA, 2020ko martxoaren 9koa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/12/1905857a.pdf>

Aldatzeko ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/03/2001437a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden langileei zuzendutako kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzak finantzatzeko 2020rako laguntzak arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Prestakuntza Profesionala arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

- Kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten pertsonen kopurua: 507
- Kontratatzeko konpromisoa duten prestakuntza-ekintzen ondorioz kontratatutako pertsonen kopurua: 52.

Aurrekontua gauzatzea

Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoak 2.000.000 eurokoak dira; horietatik 1.000.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.000.000 euro 2021eko konpromiso-kredituari dagozkio.

2020rako gauzatutako aurrekontua: 1.470.386,54

**Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:**

Kontratazeko konpromisoa duen lanbide-heziketako programaren helburua da prestakuntza espezializatua eta egokia eskaintzea gure erkidegoan instalatuta dauden edo ezarri berriak diren enpresek sortutako lanpostu berriei, kontuan hartuta prestakuntza-ekintzen helburu nagusia dela langabeak laneratzea edo birlaneratzea produkzio-sistemak eskatzen dituen enplegetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emitza</u> |
|---|----------------------|---------------|
| Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua | 900 | 507 |
| Hitzartutako kontratuen kopurua | 450 | 52 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kualifikazio txikiko gazteentzako prestakuntza

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko ekainaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2020-2022 aldirako dirulaguntza-deialdi bat, helburu hau duena: Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egitea (2020ko uztailaren 3ko EHAA)

Hutsen zuzenketa: EBAZPENA, 2020ko azaroaren 18koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena (2020ko abenduaren 11ko EHAA)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHHari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2002604e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da 2020-2022 aldirako laguntzak arautzea, prestakuntza-ibilbideak sortzeko prestakuntza-proiektuak finantzatzeko oinarrizko kompetentzietan, kompetentzia sozio pertsonaletan eta oinarrizko mailako kompetentzia tekniko profesionaletan, prestakuntzaren hartzaileen garapen pertsonala eta gizarteratze sozioprofesionala bultzatzeko, bai eta 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea, eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

180 gazte sartu dira onartutako 13 proiektuen prestakuntza-ibilbideetan.

Aurrekontua gauzatzea

Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.612.500 eurokoa izango da; horietatik 399.375 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, 806.250 euro 2021eko konpromiso-kredituari eta 406.875 euro 2022ko konpromiso-kredituari.

2020ko aurrekontu gauzatua (2018-2020, 2019-2021 eta 2020-2022 deialdietan): 1.149.375,00 €.

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Programa honen bidez, eskola uzten duten eta, adinagatik, hasierako lanbide-heziketara berriz lotu ezin diren gazteek behar duten arretarik gabeko premia asetzen da, bai eta gaztelania ikasi behar duten, trebetasun sozial eta kulturalak dituzten eta gure ingurunean laneratzea eta gizarteratzea eskain diezaieketen lanbideetan profesionalki trebatu behar duten gazte etorkinek ere.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| <u>Adierazlea</u> | <u>Aurreikuspena</u> | <u>Emitza</u> |
|---------------------------------|----------------------|---------------|
| Prestatutako pertsonen kopurua: | 195 | 180 |



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko uztailaren 8koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita COVID-19aren ondorioz ezarritako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzen deialdia

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2002986e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

COVID-19ak ekarritako osasun-krisiak eta hari aurre egiteko deklaraturako alarma-egoerari lotutako neurriek enpresen jarduera etetea edo murriztea eragin dute, eta ondorio masiboa izan dute soldatoko langileen enpleguan, kalte handia jasan baitute, beren kontratuak eten edo lanaldia murriztu zaizkielako aldi baterako enplegu-erregulazio espedienteak ezarrita, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretu Legearen 22. eta 23. artikuluen babesean.

Beren lan-kontratuak eten edo lanaldia murriztu eta langabezia-prestazioa kobratzen hasi diren pertsonak, enplegua mantenduta ere, baliagarri dituzten errentak nabarmen urritu izana jasaten ari dira aldi honetan, eta egoera hori bereziki nekeza da soldatarik txikienak dituztenentzat.

Egoera horretaz jabetuta, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Enplegu Taldeak lehentasunezko iritzi dio kalteberatasun handieneko egoeran dauden pertsonak babesteari, eta beharrekotzat jotzen du ezartzea, normaltasuna berreskuratzeko fase progresibo honetan, enplegua sustatzeko neurriekin batera, soldatarik txikienak dituzten langileen langabezia-prestazioa osatzeko laguntza bat. Helburua da errenta-urritasun hori, nolabait ere, berdintzea eta, ahal den neurrian, pertsona horiei laguntzea, haien beharrak asetzeko moduko bizi-maila duin bati eutsi diezaien. Ondorio horretarako izenpetu du, 2020ko ekainaren 18an, osagarri hori arautzeko oinarriak ezartzen dituen aurrekordio bat.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Jasotako eskaerak: 8.548

Emaitzak orain arte (deialdiaren ebazpena ez da amaitu): 5.990 diru-laguntza emateko ebazpenetatik:

- Uztailari dagozkion 5.647 ordainketa egin dira, eta 192 espediente daude, uztailean LEIko egunik gabe; beraz, ordainketa 0 da. 151 espediente daude, eta horietatik SEPEk emandako datuak kontrastatzen ari dira.



- Abuztuko 5.257 ordainketa egin dira, eta 539 espediente daude abuztuan LEIko egunik gabe. 194 espediente daude, eta horietatik SEPEk emandako datuak kontrastatzen ari dira.
- Irailari dagozkion 4.749 ordainketa egin dira, eta 1.084 espediente daude irailean LEIko egunik gabe. 157 espediente daude, eta horietatik SEPEk emandako datuak kontrastatzen ari dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aparteko deialdia denez, ez dago adierazlerik Diru-laguntzen Plan Estrategikoan.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzak (2. deialdia)

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko azaroaren 18koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita COVID-19aren ondorioz ezarritako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzen bigarren deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/11/2005041e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

COVID-19ak ekarritako osasun-krisiak eta hari aurre egiteko deklaraturako alarma-egoerari lotutako neurriek enpresen jarduera etetea edo murriztea eragin dute, eta ondorio masiboa izan dute soldatuko langileen enpleguan, kalte handia jasan baitute, beren kontratuak eten edo lanaldia murriztu zaizkielako aldi baterako enplegu-erregulazio espedienteak ezarrita, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretu Legearen 22. eta 23. artikuluen babesean.

Beren lan-kontratuak eten edo lanaldia murriztu eta langabezia-prestazioa kobratzen hasi diren pertsonak, enplegua mantenduta ere, baliagarri dituzten errentak nabarmen urritu izana jasaten ari dira aldi honetan, eta egoera hori bereziki nekeza da soldatarik txikienak dituztenentzat.

Egoera horretaz jabetuta, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Enplegu Taldeak lehenasunezko iritzi dio kalteberatasun handieneko egoeran dauden pertsonak babesteari, eta beharrekotzat jotzen du ezartzea, normaltasuna berreskuratzeko fase progresibo honetan, enplegua sustatzeko neurriekin batera, soldatarik txikienak dituzten langileen langabezia-prestazioa osatzeko laguntza bat. Helburua da errenta-urritasun hori, nolabait ere, berdintzea eta, ahal den neurrian, pertsona horiei laguntzea, haien beharrak asetzeko moduko bizi-maila duin bati eutsi diezaien. Ondorio horretarako izenpetu du, 2020ko ekainaren 18an, osagarri hori arautzeko oinarriak ezartzen dituen aurreakordio bat.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Jasotako eskaerak: 6.310.

Deialdia ebatzi gabe dago.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aparteko deialdia denez, ez dago adierazlerik Diru-laguntzen Plan Estrategikoan.